



Hezkuntza publikoan

euskaraz

**LAN EGITEKO ETA
BIZITZEKO ESKUBIDEA**

bermatu!

Euskararik gabe, kalitatezko zerbitzu publikorik ez!

Azken urteetan Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzeko zein lantokietan euskaraz lan egin ahal izateko eskubideen kontrako **oldarraldi politiko eta judiziala** bizi dugu. Eraso horien aurrean LAB beste sindikatu eta euskalgintzako eragileekin mobilizatzen aritu da, eta erasoei erantzuten jarraituko du.

Era berean, baina, euskararentzat plangintzak adostea, baliabideak eta berme juridikoak lortzeko **ofentsibara pasatzeko garaia** dela uste dugu, eta ELAekin batera jauzi hori ematea erabaki dugu.

Eremu bakoitzeko egoera eta interpelazioak kontuan edukita, ikasturte osoan **Hego Euskal Herrian mobilizazioak egingo ditugu** dinamikaren barruan, EA Erako eta Nafarroarako deialdi berezietuekin.

Zerbitzu publiko guztietako langileak aktibatuko ditugu, eta borroka lantoki guztietara eramango dugu, azpikontrataturako eremuetara barne.

Hezkuntza publikoan ere hori egitera goaz, izan ere, **D ereduaren hedapenari galga jarri zaio**, eredu honetako lerroak irekitzeko eskatu duten "eremu ez euskalduneko" edo "mistoko" herriei ezezko erantzuna emanez, edo epeak agortu arterainoko luzamendu administratiboak aurkeztuz.

Era berean, **beste programa batzuk lehenetsi** dira euskararen gaineratik. **PAI** edo **PALE** bezalako beste hizkuntzetako programak modu aktiboan bultzatzea, "euskarafobiaren" erakusgarri argia da, edo gutxienez, norberaren hizkuntzarekiko interes politikorik ezaren erakusle. Izan ere, **euskarazko lerro berriak irekitzeko aukerari kalte zuzena** egiteko asmoa baitu jokabide horrek.

Bestalde, **Euskarazko Lanbide Heziketako eskaintzak ia hutsaren hurrengoa** izaten jarraitzen du. D eredutik datozen ikasleak kopuru osoaren %30 inguru diren arren, ez da aurrera egin euskarazko graduak edo horietako plaza kopurua zabaltzeko, eta gaur egun, **eskaintza negargarria da**: Erdi Mailan, euskarazko plazak % 11 baino ez dira, % 10 Goi Mailan eta % 3 bakarrik Oinarrizko Lanbide Heziketan.

Azken urteotan ere, A eta D ereduko **irakasleen formakuntzan** dihardun EIBZn langileak, baliabideak eta baita programak **murritz** egin dituzte: freskatze ikastaroak, musikariak ikastetxean eta sormen digitala programak, zenbait prestakuntza-ikastaro... Hori gutxi balitz, **EIBZ lekuz aldatuko dute** Hezkuntza Departamentuak aldebakarrez hartutako erabakiaren ondorioz, bertako langileen iritziaren kontra.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz eskaintzen diren gradu, graduondo eta irakasgaiak ez dira nahikoak. Hori **ez dator bat ez errealitate soziolinguistikoarekin**, ez eta ikasleen eskaerarekin ere.

D eredutik datozen ikasleak gero eta gehiago diren arren, eskaintza gradu gutxi batzuetara mugatzeak eta hizkuntza horretan irakasgai gutxi izateak **ikasleen hizkuntza-askatasuna** eta **askatasun akademikoa mugatzen dituzte**.

Hezkuntza publikoan, gainontzeko zerbitzu publikoetan bezala (osasuna, zaintza, justizia, garraioa, administrazioarekin harremanak...) **zerbitzua euskaraz jasotzeko** eta **bertan euskaraz lan egiteko eskubidea ez dagoela bermatuta** agerikoa da.

Beraz, euskarak eta euskalduntzeak **beharrezko dituzten berme legalak** lortzeko ezinbestekoa izango da **mobilizazio soziala eta langileen aktibazioa**, eta horretan buru-belarri dihardu LABek.

Horregatik, ikasturte honetan, irailaren 18an zein urriaren 2an mobilizazioak burutu zituen LABek, abenduaren 16 eta 17an ELA eta STEILASekin batera mobilizatu zen eta hurrengo asteetan ELA eta STEILASekin batera mobilizatuko da. Gainera, **otsailetik ekainera bitartean mobilizazioak areagotuko** dituela adierazten du LABek.

Hortaz, LABek **euskal langileriari dei** egiten dio **euskararen alde eta hizkuntza eskubideen alde aktibatzer**a eta eragitera, baita ikasturte honetan euskararen alde deituko diren **mobilizazio eta ekimenetan parte hartzer**a ere. Aldaketa legalak egiteko garaia da. Lege aldaketaren bidez, administrazio publikoan euskara eta gaztelaniaren ezagutzaren beharra parekatzea lortu behar dugu eta horretarako mobilizazio soziala eta euskal langileon aktibazioa ezinbestekoa da.

Euskararik gabe, kalitatezko zerbitzu publikorik ez!



Hezkuntza publikoan

euskaraz

**LAN EGITEKO ETA
BIZITZEKO ESKUBIDEA**

bermatu!

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA